

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 414/2022 Erabakia, uztailaren 5ekoa. Onestea luzatzea energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzeko dirulaguntza lerroen (2021-2022) gauzatze epea eta justifikazio agiriak aurkezteko epea 2022ko urtekorako**

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 23ko 157/2021 Erabakiaren bidez, onetsi zen Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 31/2018 Foru Dekretuak (ondoren Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 9ko 23/2019 Foru Dekretuaren bidez aldatua) araututako energia jasangarritasuneko ekintzak bultzatzeko laguntza-lerroaren 2020-2021erako deialdia. Azaroaren 23ko 722/2021 Foru Erabakiaren bidez ebatzi zen laguntza horien emakida.

2021-2022rako deialdiaren ebazpenean, ezarri zen 2022. urteko gastuak ordaintzeko agindutako agiriak 2022ko uztailaren 15erako aurkeztu behar zirela, eta 2022ko uztailaren 8a baino lehenago gauzatu behar zirela gastuak.

Manurgako Administrazio Batzarrari 14.520,00 euroko dirulaguntza eman zitzaion 23 kWp-ko autokontsumo instalazio fotovoltaikoa egiteko eta energia-komunitatea sortzeko, eta 2022. urtean esleitu zen. 2022ko maiatzaren 16an, erakunde horrek luzapena eskatu zuen, argudiatuz lanak adjudikatu zitzaizkion enpresa ez dagoela funtzionamenduan eta proposamen ekonomiko berria eskatu, aztertu eta onartu behar izan dutela.

Sabandoko Administrazio Batzarrari 13.965,71 euroko dirulaguntza eman zitzaion Sabandoko kontzejuan eguzki instalazio fotovoltaiko partekatua ezartzeko, eta 2022. urtean esleitu zen. 2022ko maiatzaren 5ean, erakunde horrek luzapena eskatu zuen, argudiatuz Leader-en emakidaren jakinarazpenaren zain zeudela, ekintza gauzatu ahal izateko.

Legutioko Udalari 6.000,00 euroko dirulaguntza eman zitzaion klimaren eta energia jasangarriaren aldeko ekintza-plana gertatu eta idazteko, eta 2022. urtean 3.348,84 euro esleitu ziren. 2022ko maiatzaren 19an, udal horrek idazkia bidali zuen, agindutako kontratazio prozesuak aurrera eramateko luzapena eskatzen zuena, lanak gauzatzeko laguntza teknikoa kontratatzeko urratsean daude eta.

Urturiko Administrazio Batzarrari 19.286,87 euroko dirulaguntza eman zitzaion Administrazio Batzarrarentzako autokontsumo instalazio fotovoltaikoa egiteko, eta 2022. urtean 11.572,12 euro esleitu ziren. 2022ko ekainaren 9an, erakunde horrek luzapena eskatu zuen, banketxe batekin kreditua sinatzeko zain baitaude faktura ordaintzeko.

Kanpezuko Udalari 9.000,00 euroko dirulaguntza eman zitzaion ibilgailu elektriko bat erosteko, eta 2022. urtean esleitu zen. 2022ko maiatzaren 5ean, udal horrek idazkia bidali zuen, ahalik eta gehien luzatzeko eskatzen zuena, argudiatuz automobilgintzaren sektorean hornidura-arazoak zeudela, ibilgailu elektrikoa erosteko helburuaz.

Urkabustaizko Udalari 6.000,00 euroko dirulaguntza eman zitzaion klimaren eta energia jasangarriaren aldeko ekintza-plana gertatu eta idazteko, eta 2022. urtean esleitu zen. 2022ko maiatzaren 18an, udal horrek idazkia bidali zuen, agindutako kontratazio prozesuak aurrera eramateko luzapena eskatzen zuena, lanak gauzatzeko eskaintzak eskatu eta balioesteko urratsean daude eta.

Aramaioiko Udalari 6.000,00 euroko dirulaguntza eman zitzaion klimaren eta energia jasangarriaren aldeko ekintza-plana gertatu eta idazteko, eta 2022. urtean esleitu zen. 2022ko maiatzaren 18an, udal horrek idazkia bidali zuen, agindutako kontratazio prozesuak aurrera eramateko luzapena eskatzen zuena.

Kuartangoko Udalari 6.000,00 euroko dirulaguntza eman zitzaion energia-auditoretza, kontsumoen kontrola eta energia-jarduketako plana egiteko, eta 2022. urtean esleitu zen. 2022ko maiatzaren 12an, udal horrek idazkia bidali zuen, 2022ko urriaren 31ra arteko luzapena eskatzen zuena, argudiatuz arazo teknikoak zeudela bukatu eta egiaztagiria entregatzeko.

Beraz, bidezkoa da aurkeztutako eskaerak onartzea eta epearen luzapen hauek ezartzea:

- 2022ko azaroaren 23a, diruz lagundu daitekeen jarduna gauzatzeko.
- 2022ko azaroaren 30a, diruz lagundu daitekeen jardunaren ordainketa frogatzeko agindutako dokumentazioa aurkezteko.

Horri jarraituz, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak eztabaidatu ondoren, gaurko saioan hauxe

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea gauzatzeko epea 2022ko azaroaren 23ra arte luzatzea Manurgako Administrazio Batzarrak, Sabandoko Administrazio Batzarrak, Legutioko Udalak, Urturiko Administrazio Batzarrak, Kanpezuko Udalak, Urkabustaizko Udalak, Aramaioko Udalak eta Kuartangoko Udalak 2022. urterako eskatutako energia-jasangarritasuneko ekintzak bultzatzeko laguntza-lerrorako (2021-2022).

Bigarrena. Onestea frogagiriak aurkezteko epea 2022ko azaroaren 30era arte luzatzea Manurgako Administrazio Batzarrak, Sabandoko Administrazio Batzarrak, Legutioko Udalak, Urturiko Administrazio Batzarrak, Kanpezuko Udalak, Urkabustaizko Udalak, Aramaioko Udalak eta Kuartangoko Udalak 2022. urterako eskatutako energia-jasangarritasuneko ekintzak bultzatzeko laguntza-lerrorako (2021-2022).

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen hau behin betikoa da administrazio bidean eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 5a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*

**JOSEAN GALERA CARRILLO**

*Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria*

**NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA**